



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



2024

Kultura eta zahartze aktiboa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kultura eta zahartze aktiboa

➤ 1. Aurkezpena

➤ 2. Zahartzea testuinguruan

- 2.1. Kontzeptura hurbiltzea
- 2.2. Errealitatea zenbakitan
- 2.3. Bizi-etapa honen berezitasunak
- 2.4. Joerak

➤ 3. Zahartze aktiboa eta politika publikoak

- 3.1 Nazioarteko agenda
- 3.2 Europako eta estatuko agenda
- 3.3 Euskal estrategia

➤ 4. Kulturak zahartze aktiboari egiten dion ekarpena

- 4.1 Kulturaren posizio estrategikoa
- 4.2 LAdinekoak, kultura-sektorearentzako aukera-nitxo
 - Adinekoen parte-hartze kulturalaren ezaugarriak
 - Joera soziodemografikoak eta kulturarako inplikazioak
- 4.3 Parte-hartze kulturalak zahartze aktiboari egiten dion ekarpena
 - Ikuspegi psikologikoa
 - Gaitasunen ikuspegia
 - Osasunaren ikuspegia
- 4.4 Kultura-politikak birpentsatzea
 - Edukien ikuspegia
 - Kultura-politiken ikuspegia

➤ 5. Azken gogoetak

➤ 6. Bibliografia

Laguntza teknikoa:
ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Itzulpena:
LETE ITZULPENAK-
TRADUCCIONES, SL

Diseinua eta maketazioa:
DIAGONAL 360°

**KULTURAREN EUSKAL
BEHATOKIA**

Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz - Álava
T. 945 016 947
kulturabehatokia@euskadi.eus

1. Aurkezpena

Biztanleak zahartzea kontuan hartu beharreko fenomeno da egungo egoera soziodemografikoaren edozein azterketatan, eta are gehiago, etorkizunari begira. Eragina du gizarte-egituraren funtsezko alderdietan, eta gaur egungo erronka handienetakoa da horrenbestez.

Bizi-itxaropena handitu egin da, eta bizi-luzetasunaz ari garenean birpentsatu egin behar ditugu eredu sozial, politiko eta ekonomikoak, gero eta handiagoa den errealitate horrekin bat etorritz, batez ere mendebaldeko munduan; hartara, adinekoak egoki biziko dira gizartean eta ekarpena egin ahal izango diote hari, xede batekin eta ahalik eta duintasun handienarekin. Hala dio azken Innobasque Prospektiba txostenak.

Erronka izugarria da, dudarik gabe, eta gobernu-maila guztietan egiturazko erronketako baten moduan identifikatu du agenda politikoak. Gainbehera

demografikoari eta biztanleria zahartzeari lehentasun handiena emateko eskatu diete nazioarteko erakundeek gobernuei. Azken hamarkadetan, ugalkortasun-tasaren eta heriotza-tasaren beherakadak biztanleak nabarmen zahartzea eragin du. Migrazio-fluxuen dinamismoa gorabehera, zahartze-prozesu hori beste herrialde batzuetan baino nabarmenagoa da EAEn, eta datozen hamarkadetan areagotu egingo dela aurreikusi da: 2023tik 2053ra bitartean, mendekotasun-tasa (66 urtetik gorakoen eta 16 eta 66 urte bitartekoen arteko ratioa) ehuneko 27,2 puntu handituko da, % 53,8ra iritsi arte, EBko batez bestekoaren oso gainetik (16,6 puntu, % 45,8ra iritsi arte).

Euskadin, jaiotza-tasen beheranzko joerak ez du atzera egiten, bizi-itxaropena Europako altuenetakoa da, eta emakumeek seme-alabak izateko batez besteko adina ere Europako batez bestekoaren gainetik dago. Oro har, Europar Batasunean balantze

demografiko okerrearen duten herrialdeen artean gaude.

Biztanleen zahartze-prozesu horrek zuzenean eragiten die lan-merkatuari eta enpleguari, laguntza-, osasun- eta hezkuntza-sistemei, eta horrek kolokan jartzen du egungo ongizate-eredua. Hori dela eta, erronka demografikoari erantzun sistemikoa eman behar zaio urgentziaz, zahartze oso-bete eta osasungarriko estrategiak sustatuz.

Azterlan honek gogoeta eskaini nahi du errealitate horri buruz, eta kulturak zahartze aktiboari zer ekarpen egin diezaiokeen azpimarratu. Maila globalean bultzatutako estrategietan esplizituki jasoa ez badago ere, onura kognitiboak, emozionalak, adierazkorrak eta sozialak sortzeko berez duen gaitasunak lagun dezake zahartze aktiboko politikak nabarmen aberasten, eta, hala, adinekoen bizi-baldintzak hobetzen.

Hiru atal handitan egituratua dago txosten hau, eta azken gogoeta batzuekin amaitu dugu. Lehenengo atalean testuingurua aztertu dugu, zahartzearen kontzeptua azalduta. Datuak aurkeztu ditugu, gizartean duen eraginaz jabetzeko joerak adierazi ditugu, eta bizi-etapa horren ezaugarri nagusiak zehaztu ditugu.

Bigarren atalean zahartzearen inguruko estrategia nagusiak laburbildu ditugu, bai maila autonomikoan, bai Europan, bai maila globalean.

Hirugarren atalean kulturak zahartze aktiboari egiten dion ekarpenean sakondu dugu. Hasteko, kulturak prozesu horretan duen posizio estrategikoa eta horrek eskaintzen dituen aukerak azaldu ditugu. Atal hau amaitzeko, gogoeta egin dugu bizitzaren prozesu horretan kulturen parte hartzeak dakartzan onurei buruz, bai eta adinekoen kolektiboarekin lan egiteak kultura-politiketarako dakarren birplanteamenduari buruz ere.

Txostena amaitzeko, azken gogoeta batzuk egin ditugu kultura zahartze aktiboko estrategietan txertatzeari buruz, betiere azpimarratuz ekarpen positiboa egiten duela bizitzaren azken ziklo horretan ongizatea handitzeko.

2. Zahartzea testuinguruan

2.1. Kontzeptura hurbiltzea

Errealitate horretara hurbiltzeko hiru modu erakusten dituzte Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) zahartzaroari buruz egiten dituen definizioek: bizi-prozesu gisa, ziklo baten amaierarekin lotutako ezinbesteko eraldaketekin batera; bizitzaren azken etapa hasten den une gisa; edo, ikuspegi funtzionaletik begiratuta, ingurunearekin ezarri den harremanaren arabera.

Zahartzaroa, hurbilketa prozesualetik abiatuta, “bizitzaren azken uneko eraikuntza sozial eta biografikoa da, eta norbanakoaren bizitzaren azken hamarkadak hartzen ditu barne, heriotzak dakarren azken unearekin; genero-identitateen, bizi-esperientzien, gertaera erabakigarrien eta bizi-ibilbidean

aurre egindako trantsizioen arabera egiten du aurrera. Urteek aurrera egitearekin lotua dago, eta norbanakoak eraldaketa fisikoak, kognitiboak, emozionalak eta sozialak izaten ditu zahartzen den heinean. Eraldaketa horiek berekin dakarte, ezinbestean, pixkanaka galtzea gorputz-gaitasunak eta gaitasun funtzionalak, bai eta hezur-dentsitatea, gihar-tonua eta indarra galtzea ere”.

Ikuspegi kronologikotik begiratuta, objektibatu daitezkeen irizpideei jarraituz, mundu garatuaren ekonomietan, 65 urte edo gehiago dituztenak dira **adinekoak**, edo, beste ikuspegi batetik begiratuta, jaiotzean zuten batez besteko bizi-itxaropena gainditu dutenak.

Ikuspegi kronologiko eta mailaz mailako horri jarraiki, OMEk 4 etapa bereizten ditu zahartzaroan, edo, hobeto esanda, hiru etapa eta aurreko etapa bat:

- Lehen etapa: 55-65 urte artekoa, zahartze aurrekoa edo erretiroa hartzen denekoa, eta mendekotasunik eza du ezaugarri.
- Bigarren etapa: 65-74 urte artekoa, zahartzaro goiztiartzat hartzen da.
- Hirugarren etapa: 75-84 urte artekoa, tarteko zahartzarotzat hartzen da.
- Laugarren etapa: 85 urtetik aurrera, zahartzaro aurreratutzat jotzen da, eta ahultasuna eta mendekotasuna ditu ezaugarri.

Ikuspegi funtzionala hartzen badugu kontuan, bizitzako etapa horretan pertsonak beren ingurunearekin erlazionatzeko duten gaitasunaren arabera, zahartzea izan daiteke:

Ezin hobea, funtzionaltasun fisikoa, mentala eta soziala handiak direnean, gaixotasun larririk eta mendekotasunik ez dagoenean, baina adinagatik horiek izateko arrisku logikoarekin.

Fisiologikoa, eboluzio naturalaren parte diren prozesuak, ingurunera eta egoera berrietara egokitzea eragotzi gabe.

Patologikoa, endekapen-prozesuek eta gaixotasunek pertsonari ingurunera egokitzea zailtzen diotenean.

Ikusi dugu, beraz, zahartzaroa, zahartzea, zer den edo adinekotzat zer jotzen den ezartzen saiatzean, autonomiarekin eta mendekotasunarekin lotutako bizi-zikloaren irizpideetara jo daitekeela, adinari lotutako irizpideari jarrai dakiokela edo erretiroari lotutako irizpide soziolaborala ere erabil daitekeela. Bizitzaren amaierara arteko trantsizio-etapa horretan bizi diren egoerak konplexuak eta era askotakoak direla adierazten du horrek.

Bizitzaren fase hori ulertzeko moduan beste urrats bat eginez gero, OMEk Europako tradizioaren eredua hartu zuen 90eko hamarkadatik aurrera, zahartzea ongizatearekin zerikusia duten bi kontzeptu positiborekin lotzen duena:

Zahartze osasuntsua, edo bizitzan zehar osasun fisiko eta mentala, independentzia eta bizi-kalitatea mantentzeko eta hobetzeko aukerak optimizatzeko etengabeko prozesua.

Zahartze aktiboa, aurrekoan oinarritua, osasun, parte-hartze eta segurtasuneko aukerak optimizatzen diren prozesu gisa ulertua, pertsonen bizi-kalitatea hobetu ahal izateko zahartzen diren heinean.

Jardueraren, osasunaren, independentziaren eta ondo zahartzeko aukeraren arteko erlazioa nabarmentzen du, osasunaren ikuspegi eta kontzeptu zabalarekin, ongizate biologiko, psikologiko eta sozialaren baldintza gisa. OMEk XXI. menderako proposatu duen zahartze osasuntsuaren kontzeptuaren ordez,

kontzeptu orokorrago bat ezarri da, zahartze aktiboa. Kontzeptu horretan kontuan hartu dira, osasun-adierazleak ez ezik, alderdi psikologikoak, sozialak eta ekonomikoak ere, ikuspegi zabalago eta komunitariotik begiratuta, eta alderdi kulturalak eta genero-desberdintasunak ere aintzat hartuta. Hori da kulturari bizitzako etapa horretan eragiteko aukerak ematen dizkion esparrua.

2.2. Errealitatea zenbakitan

Zahartze demografikoak esan nahi du lan egiteko adinean dauden pertsonen proportzioa murrizten ari dela, eta, aldi berean, adinekoen kopurua handitzen ari dela; eredu horrek jarraitu egingo du datozen bi hamarkadetan, *baby boomaren* belaunaldiak erretirorako trantsizioa amaitu arte.

Prozesu horrek sakoneko ondorioak ditu, eta osasun-sistemei, gizarte- eta zaintza-zerbitzuei, lan-merkatuari, finantza publikoei eta pentsio-sistemei eragiten die. Baina ondorio horiek aztertzen hasi aurretik, komeni da aldaketa demografiko sakon hori kuantifikatzea.

Europar (EB-27), Eurostaten datuen arabera, 2023ren hasieran, guztizko biztanleriaren bostena ziren (% 21,3) adinekoak (65 urteko edo hortik gorako pertsonak). 80 urtekoen eta hortik gorako taldea zehatzago aztertuz gero, haren pisua ia bikoiztu egin zen 2002 eta 2022 artean estatu kide guztietan: 2,6 puntu hazi zen EBn, 2002an

% 3,5 izatetik 2022an % 6,1 izatera pasa baitzen. Aurreikuspenen arabera, EBko biztanle-kopurua jaisten hasiko da datozen urteetan, eta adinekoen kopuruak, berriz, gora egingo du, batez ere lan egiteko adinean dauden pertsonen kopuruari dagokionez.

Espero da EBko biztanle-kopurua igo egingo dela, 2022an 449 milioi pertsona izatetik 2026an 453 milioi izatera pasako dela, 2070ean 432 milioira jaitsi aurretik. Aldi berean, adinaren arabera banaketan goranzko joera handia espero da estatu kide guztietan. Ugalkortasun-, hilkortasun- eta migrazio-tasei buruzko hipotesien arabera zehazten dira populazioaren tamainan eta profilean proiektatutako aldaketak.


Hona hemen gaur egungo erronka demografikoari buruzko beste datu garrantzitsu batzuk:

- Europako biztanleriaren ehunekoa jaisten ari da munduan, eta 2070ean % 4 ingurukoa izango dela kalkulatu da; gaur

egun, berriz, % 6koa da.

- 2022an, emakume bakoitzeko batez besteko jaiotza-kopurua 1,5koa izan zen; aurreikuspenen arabera, 2070ean 1,62koa izango da, hau da, biztanleria egonkor mantentzeko behar den 2,1 balioaren oso azpitik dago.
- 2022an, EBn, bizi-itxaropena 84 urtekoa zen emakumeentzat, eta 78,4koa gizonentzat. 2070erako aurreikuspenen arabera, 90,4 urtera iritsiko da emakumeen bizi-itxaropena, eta gizonena, berriz, 86,1 urtera.

1. grafikoa. Jaiotzako bizi-itxaropenaren konparazioa, sexuaren arabera. 2022.



Iturria: Eustat. Euskadi EBn

Adineko biztanle horiei eragiten dien osasunari eta ongizateari dagokienez, EBn jaiotzean bizitza osasuntsuaren estimazioa 64,5 urtekoa zen emakumeentzat, eta 63,5 urtekoa gizonentzat. 2050erako proiektzioen arabera, 38,1 milioi pertsonak iraupen luzeko zaintzak beharko dituzte EBn (adinekoen % 29k). Bestalde, azken ikerketek adierazi dute adinekoen % 40 bakarrik sentitzen direla, eta % 7 eta % 17 artean isolatuak daudela gizartean (HealthCommons, 2019). Bakardadearen eta gizarte-isolamenduaren faktore horiek zuzenean eragiten dute osasunean, estres, antsietate, depresio eta narriadura kognitibo handiagoa jasaten baitute; horrek esan nahi du gizartean konektatuak eta inplikatuak dauden pertsonen baino % 50 aukera gehiago dituztela hiltzeko.


EAEn, 65 urteko eta hortik gorako biztanleak 520.079 lagun ziren (% 23,7) 2023ren hasieran, eta horietan emakumeak ziren

nagusi (% 57,1), EB osoan gertatzen den bezala. Biztanle-talde horrek % 22,4 hartzen du Araban, % 24,1 Bizkaian eta % 23,6 Gipuzkoan.

65 urteko edo hortik gorako biztanleen kopurua handitu liteke, adin horretako 163.200 pertsona gehiago izatea aurreikusi baita; beraz, haien pisua % 29,3ra iritsiko litzateke 2036an –2021ean baino 6 puntu gehiago–. Hazkunde erlatibo handienak 85 urteko eta hortik gorako biztanleriaren artean gertatuko lirateke, 2036an 126.700 pertsona izango bailirateke, 2021ean baino 37.200 gehiago, hau da, guztizko biztanleriaren % 5,6.


Adinekoak 3 adin-talde txikiagotan bereizita (65 eta 74 urte bitartekoak, 75 eta 84 urte bitartekoak eta 85 urtetik gorakoak), nabarmentzekoa da 85 urteko eta hortik gorako biztanleria 1976an guztizko biztanleriaren % 0,4 izatetik 2022an % 4,1 izatera pasa dela.

2. grafikoa. 65 urteko edo hortik gorako biztanleak EAEn. Denboran izandako bilakaera.



Iturria: Eustat. Adierazle demografikoak. Biztanleen udal-estatistika. Biztanleria-proiekzioak

3. grafikoa. 64 urtetik gorako adin-taldeetako biztanleak EAEn. Ehunekoak. 1976-2022 bilakaera.



Iturria: Eustat. Biztanleen udal-estatistika

Bestalde, egungo bizi-baldintzak islatzen dituen beste adierazle esanguratsu bat da biztanleen % 12,8 bakarrik bizi dela, eta, neurri handi batean, adinekoak dira; zehazki, kolektibo horretako pertsonen % 44,3k 65 urte edo gehiago dituzte. 85 urteko eta hortik gorako biztanleak aztertuz gero, ikusten da pertsona bakarreko etxeetan bizi diren pertsona guztien % 11,5era iristen direla. Alderdi hori funtsezkoa da, nahi ez den bakardadearekin lotzen baita, gaur egungo gizartearen joeretako bat, hain zuzen ere. Adin aurreratuenetan are gogorragoa da bakardade hori, eta zaugarritasuna gehitzen dio berez hauskorra den etapa horri.

Bakarrik bizi diren adinekoen laurik ia hiru emakumeak dira, zehazki % 72,9. 84 urtetik gorako adin-taldean emakumeak dira nabarmen nagusi, bakarrik bizi diren pertsona guztien % 81,1 baitira. 26.000 emakume baino gehiago dira, gehienak alargunak.


Aldaketa demografiko horren arrazoiak hiru multzo handitan laburbil daitezke:

- Azken hamarkadetan ugalkortasunak izan duen beherakada handia. Europako herrialde guztiak ordezkapen-tasaren azpitik daude (2,1 seme-alaba emakume bakoitzeko). Euskadiko ugalkortasun-tasa Europako txikiena da (1,21). Lehen seme-alaba izateko batez besteko adinari dagokionez, EBn 31 urtekoa da, eta Euskadin 33,2 urtekoa.

2021	Ugalkortasun-tasa	Ama izateko batez besteko adina
Euskadi	1,21	33,2
UE (27)	1,53	31

Iturriak: Eustat eta Eurostat

4. grafikoa. EAEn bakarrik bizi den biztanleria, adin-taldeen eta sexuaren arabera. Ehunekoa. 2023.



Iturria: Eustat. Biztanleen udal-estatistika

- Bizi-itxaropena luzatzea, 60ko hamarkadatik goranzko joera baitu eta Europan orokortua baitago. Euskadin 83,6 urtekoa da. Aipatzekoa da euskal emakumeen bizi-itxaropena (86,1 urte) EB 27ko altuena zela 2022an.
- Immigrazioaren dinamismoa. Espainia da azken urteetan etorkin gehien jaso dituen Europako herrialdea, 2023an

biztanleriaren % 18,1era iritsi arte. Une honetan, ELGEko laugarren herrialdea da etorkinak hartzen, AEB, Alemania eta Erresuma Batuen atzetik. EAera iritsitako atzerritar jatorriko etorkinak guztizkoaren % 12,7 izan ziren 2023ren amaieran.

2.3. Bizi-etapa honen berezitasunak

OMEk berak bizi-etapa honen lau berezitasun aipatzen ditu, eta horien aurrean esku hartu behar da, erronka handia baitira.

Alde batetik, aipatzekoa da etapa horrek berez dakarren osasun-egoeren aniztasuna. Bizitzako beste edozein fasetan baino askoz zabalagoa da maila hori; izan ere, badira adin aurreratuko pertsonak gazte baten gaitasun fisiko eta mentalen antzekoak dituztenak, edo, guztiz kontrakoa, etapa horretako talde gazteenetan mugak dituztenak. Arazoa da aniztasun hori muturreko kasuetara murrizten saiatzea, egoera horien guztien artean egon daitezkeen mailak eta konplexutasuna baztertzen dituzten estrategiak bultzatuz. Funtsezko beste kontu bat da pertsonen bizi-baldintzak bidezkoak ez direlako gertatzen dela gorabehera horien parte handi bat. Imbersoren [Zahartze aktiboaren liburu zurian](#) adierazi den bezala, zahartzaroan aniztasuna ez da kasualitatea. Familiak,

generoak edo jaiolekuak nabarmen baldintzatzen dute osasuna, eta ez hori bakarrik, desabantaila izan daitezkeen horiek metatu egiten dira bizitzan zehar. Horrek esan nahi du zahartzaroan laguntza-premia handienak dituzten pertsonak izaten direla premia horiei aurre egiteko baliabide gutxien dituztenak ere.

Zahartzaroarekin lotutako aurreiritzietan eta leku komunetan errota dago adinagatik dauden diskriminazioen zati bat, eta horrek ondorioak ditu eragiten dituzten estereotipoetan eta adinekoei dagokienez eragiten dituzten jarreretan. Kasu honetan, “edadismoaz” hitz egiten da, adina baita aurreiritzi horiek proiektatzen dituen, mendekotasunarekin, narriadurarekin edo kargarekin lotutako zahartzaroaren ideia sorraraziz.

Bizi-itxaropena eta erretiro-aldia luzatzeak lagundu egiten du etapa horietako bizitzaren esparru tradizionala malguago ulertzen, egungo testuinguruarekin bat etorritz.

Azkenik, aldaketak familien egituretan eta belaunaldien arteko harremanetan duen eragina ere aipatu behar da. Hala, gaur egun inoiz baino belaunaldi gehiago bizi dira aldi berean, familia-unitateak txikiagoak dira eta bakarrik bizi diren pertsonak ugaritu egin dira.

2.4. Joerak

Adinekoekiko euskal estrategiak (2021-

2024) jasotzen duen bezala, proiektzio demografikoek EAerako erakusten duten egoeraren ezaugarriek areagotu egiten dituzte gaur egungo zahartzearen ezaugarri batzuk, eta horrek funtsezko ondorioak ditu egungo egiturari eta bizimoduan.

Garrantzitsuenen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- **Gehiegizko zahartzea.** Laurogei urtetik gorako pertsonen kopurua handitu egingo da 2060rako, gaur egun duten pisua bikoiztuz, biztanleriaren % 15,6ra iritsi arte. Urte horretarako, adinekoen erdiak 80 urte baino gehiago izango ditu, eta ehun urtetik gorako pertsonen kopurua ere handitu egingo da.
- **Feminizazio txikiagoa.** Bizitzako etapa horietan emakumeak nagusi diren arren, eta joeren arabera errealitate horrek etorkizunean ere iraungo duen arren, gizonen bizi-itxaropena handitzeko aukerak, ikerketa batzuek planteatzen duten bezala, agertoki berriak irekiko ditu bikote-bizitzarekin, alarguntza-baldintzen aldaketarekin edo adin aurreratuko pertsonen premia desberdinekin loturik.
- **Hezkuntza-maila handiagoa.** Adineko biztanleen ikasketa-mailaren bilakaera jauzi nabarmena izaten ari da, eta are gehiago handituko da datozen urteetan, *baby boomaren* belaunaldia zahartu ahala. Adibide gisa, 2010 eta 2020 artean, unibertsitate-ikasketak dituzten 65 urtetik gorako biztanleak % 4,6tik % 26,6ra igo dira.
- **Lan-egoera.** Era berean, gaur egungo erretiro-adinetik aurrera lanean jarraitzeko joera txikia nabari da. Ez da hain bat-bateko hausturarik egongo lanaren eta aisialdiaren artean, ez eta jarduneko egoeraren eta erretiroaren artean ere. Orain arte bizi-zikloak ibilbide linealari jarraitzen bazion, lanaren ardatzaren inguruan antolatua, aurrerantzean heterogeneoagoak, konplexuagoak eta askotarikoagoak izango dira ibilbide horiek.
- **Diru-sarreraren maila.** Adinekoen diru-sarreraren mailak gora egin duen arren, haien kalteberatasun-mailak handia izaten jarraitzen du. Emakumea lanean hasi izanak haien ordainsaria aldatzea ekarriko du pentsio-sisteman.
- **Egoera zibila eta etxeen osaera.** Ezkongabetasuna eta dibortzioa hazten joango dira adinekoen kolektiboan, eta horrek aldaketak ekarriko ditu mendekotasun-egoeretan. Pertsona bakarreko etxeak eta bikoteak ere ugartu egingo dira, etxe berean belaunaldi bat baino gehiago bizi direnen aldean. Kontuan izan behar da, halaber, globalizazioak eta lan-merkatuaren ezaugarriek bultzatu duten joera bat, hau da, familietan seme-alabak fisikoki lehen bezain hurbil ez egotea eta gero eta urrunago bizitzea. Alderdi horrek eragina du adinekoen zaintzan eta soziazialitatean, orain arte familia izan baita soziazializazio-ingurune nagusia.

- **Koetxebizitza.** Espazio partekatuak eta bizikidetza-komunitateak dituzten etxebizitza-proiektuak gauzatzen hasi dira, eta joera hori zabaltzen joango da seguruenik. Horrez gain, adinekoak beren etxeetan bizitzeko gomendioa egiten da, haien autonomia eta independentzia ahalik eta gehien errespetatuz, eta horrek aldaketa sakonak ekarriko ditu zaintza-ereduan.
- **Zaintza profesionalizatzea.** Orain arte, zaintzak emakumeen kontua izan dira (2018an, zaintzaileen % 59,8 emakumeak ziren Euskadin), eta, haien artean, 55 eta 64 urte bitartekoetan dago kolektibo nagusia. Etorkizunari begira, bi joera nabari dira: zaintzaile gazteen kopuruak behera egitea, eta, aldi berean, zaintza profesionalen kontratazioak gora egitea familiaren aldetik. Zaintzen planteamendu komunitariorantz joko da.

3. Zahartze aktiboa eta politika publikoak

Jarraian, zahartze aktiboaren inguruko agenda politikoa aurkeztuko dugu laburbilduta. Gobernu-maila guztietan daude estrategiak eta planak, eta, horregatik, esparru horretako politika publikoen oinarriak ezartzeko erreferentzia nabarmenenak hautatu ditugu.

3.1. Nazioarteko agenda

60ko hamarkadaren amaieran (1969) hasi zen zahartzea agenda politikoan arretagune izaten, NBEk adinekoen eskubideak nabarmendu zituenean. Ordutik aurrera, hainbat ebazpen etorri ziren, eta 1982an [Zahartzeari buruzko Lehenengo Mundu Batzarra](#) egin zen Vienan, eta [Zahartzeari buruzko Nazioarteko lehen Ekintza Plana](#) onartu zen, zahartzeari buruzko politikak

diseinatzeko ildoak ezartzen dituen nazioarteko lehen tresna, hain zuzen ere.

2002an aurkeztu ziren aurrerantzean OMEren ekintza gidatuko zuten bi tresnak:

[Adierazpen Politikoa eta Zahartzeari buruzko Madrilgo Nazioarteko Ekintza Plana](#) eta [Zehartze aktiboa: esparru politikoa](#). Giza eskubideen nazioarteko arauak osatutako esparru juridikoan oinarritu dira. Biek nabarmendu dituzte adinekoen trebetasunak, esperientzia eta jakinduria, bai eta gizarteari egiten dizkioten ekarpenak ere. Bi tresna horietan adierazitakoaren arabera, politikek ekarpen horiek bultzatzea ditzakete hainbat esparrutan, bai eta adin aurreratuan segurtasuna bermatu ere. Era berean, bizitzaren etapa horretan osasunak duen

garrantzia azpimarratu dute, bai pertsonaren beraren onerako, bai adinekoen parte-hartzea bultzatzeak dituen onura instrumentalengatik, aldi berean pertsona horien osasunean eragiten baitute. Azken batean, hiru ardatz nagusitan oinarritutako planteamendua da: parte-hartzea, osasuna eta segurtasuna.

Zahartze aktiboaren ideia nabarmendu da, tradizionalki zatikatuta egon diren arloak erlazionatzen saiatzean sortu dena. *Zahartze aktiboa: esparru politikoa* dokumentuan, sektore askotan jarduteko beharra azpimarratu da, adinekoek beren familientzat, komunitateentzat eta ekonomientzat aktibo izaten jarrai dezaten bermatzeko.

OMEren esparru politikoak zahartze aktiboan giltzarri diren 6 determinatzaile-mota hartzen ditu kontuan:

- 1) gizarte- eta osasun-zerbitzuekin lotutako determinatzaileak (osasunaren sustapena eta gaixotasunaren prebentzioa, sendatze-zerbitzuak, iraupen luzeko laguntza eta osasun mentaleko zerbitzuak barne);
- 2) jokabide-determinatzaileak: tabakismoa, jarduera fisikoa, elikadura osasungarria, alkohola, sendagaiak eta betetze terapeutikoa;
- 3) faktore pertsonalekin lotutako determinatzaileak: faktore psikologikoak, genetikoak eta biologikoak;
- 4) ingurune fisikoarekin zerikusia duten determinatzaileak: etxebizitzako segurtasuna, erorikoak eta kutsadurarik eza;
- 5) gizarte-ingurunearekin zerikusia duten determinatzaileak: gizarte-laguntza, indarkeria eta abusua, hezkuntza eta alfabetizazioa;

- 6) determinatzaile ekonomikoak: diru-sarrerak, gizarte-babesa eta lana.

Gainera, osasun-zerbitzuetara bideratutako politikak proposatu ditu, lau norabidetan:

- gehiegizko ezintasunen, gaixotasun kronikoen eta hilkortasun goiztiarraren karga prebenitzea eta murriztea;
- gaixotasun garrantzitsuen kausekin lotutako arrisku-faktoreak murriztea eta bizitzan zehar osasuna babesten duten faktoreak handitzea;
- gizarte- eta osasun-zerbitzuen jarraitutasuna garatzea, eskuragarriak, kalitate handikoak eta adinarekiko errespetuzkoak direnak, eta zahartu ahala emakumeen eta gizonen beharrak eta eskubideak kontuan hartuko dituztenak;
- zaintzaileei prestakuntza eta heziketa ematea.

Hala ere, gomendioak gomendio eta osasun publikoko politiketarako funtsezko erronka dela jakin arren, badirudi ez dela nahikoa egiten ari. Hori da behintzat azken

bi hamarkadetan 130 herrialdetan baino gehiagotan egindako aurrerapenaren azterlan baten ondorioa.

Zahartze Osasuntsuaren Hamarkada (2021-2030) betean gaudela, mundu mailan gobernuen, gizarte zibilaren, nazioarteko erakundeen, profesionalen, erakunde akademikoen, komunikabideen eta sektore pribatuaren artean hitzartutako ekintza, adinekoen, haien familien eta bizi diren komunitateen bizitzak hobetzeko. Bi ardatz nagusi ditu: batetik, osasun-sistemak pertsonen premiekin harmonizatzeko beharra, eta, bestetik, komunitateek adinekoen gaitasunak sustatzen dituztela eta arreta integratua eta pertsonengan zentratua eskaintzen dutela bermatzea.

3.2. Europako eta estatuko agenda

Europar, adinekoei (1993) eta zahartze aktiboari eta belaunaldien arteko elkartasunari (2021) Europako urteak eskaintzeaz gain, [Zahartzeari buruzko liburu berdearen](#) argitalpena nabarmentzen da, zahartzeak dakartzan erronkei eta aukerei buruz eztabaida sakona zabaltzeko asmoa duena. Bere ikuspegia bizi-zikloan oinarritua dago, eta inplikazio pertsonaletan zein ondorio sozial zabalagoetan jarri du arreta. Horien artean daude etengabeko ikaskuntza eta bizimodu osasungarriak, pentsio egokiak nola finantzatu edo produktibitatea handitzeko beharra eta adineko pertsonen osasun-laguntzari eta iraupen luzeko zaintzari eusteko behar adina langile edukitzea.

Zahartzearen zeharkakotasunaren ideia bideratua da Europako estrategia, OMEren kasuan ere ikusi dugun bezala, eta, zahartze aktibo eta osasuntsuan oinarritzeaz gain,

funtsezko bi kontzeptu azpimarratzen ditu: belaunaldien artekoa eta etengabeko ikaskuntza. Biek ematen dituzte kulturatik esku hartzeko aukerak.

Estatuan, IMSERSOren [Zahartze aktiboaren liburu zuria](#) (2011) nabarmendu behar da, fenomeno horri buruz hausnartzeko erreferentziatzeko dokumentu gisa. Azken urteotan, honako hauek dira erreferentzia estrategiko nagusiak: [Adineko Pertsonen Estrategia Nazionala](#), [Zahartze Aktiborako eta Tratu Onerako](#) (2018-2021), [Espainia 2050 Estrategia](#) eta [Zaintzen ekonomiarako eta gizarteratze-politikak indartzeko talka-plana](#). Hainbat alderdi hartzen dituzte kontuan: lana, parte-hartzea, independentzia, berdintasuna, osasun- eta gizarte-zerbitzuak eta iraupen luzeko zaintzak.

3.3. Euskal estrategia

Euskadik ere agenda bizia du erronka demografikoaren, zahartzearen eta zaintzen inguruan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai lurralde- edo toki-mailan.

Eusko Jaurlaritzak 90eko hamarkadan ekin zien bere politikei hainbat plangintza gerontologikorekin. Azken legegintzaldian (XII), [2021-2024 urteetarako Adinekoekiko Euskal Estrategiaz](#) gain (era horretako hirugarren estrategia da, eta zahartze aktiboa, bizitza osoa eta kolektibo horren autonomia ditu ardatz), [Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa 2023-2026](#) ere egin da, zaintza-eredu berri baterako trantsizio-egoera gisa.

Aipatzekoa da zaintza-sistema berriak publikoa, komunitarioa eta desfeminizatua izan behar duela. Horren harira, helburua da 2030erako erdira murriztea zaintzetan dagoen genero-arrakala. Eredu berriak honako hauek ditu helburu:

- Familiako zaintzaren proportzioa murriztea, erakundeen zaintza indartzean.
- Zaintza-lanak birbanatzea, eta gizonen familiaren zaintzan eta, oro har, zaintzan duten erantzukizuna handituta.
- Zaintza-lana aintzatestea, baloratzea eta duintzea.
- Lan hori egiten dutenak ordezkatzeko eta horiei ahotsa ematea.

Nabarmentzekoak dira, halaber, [Familia zaintzaileei laguntzeko Estrategia](#), [Soziosanitarioa 2021-2030](#), eta [Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategia](#), bai eta Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiek eta hiru hiriburuek berriki sinatu duten akordioa (2024ko otsailean) Zaintzen aldeko Euskal Ituna egiteko.

Bestalde, hiru lurralde historikoek beren agendak dituzte gai horri buruz, eta horien artean nabarmentzekoak dira [Araba Helburu](#) eta [Araba a punto: nahi gabeko bakardadearen kontra](#); [Adinberri](#) eta [Hariak](#) Gipuzkoaren kasuan, eta Bizkaiko [adinekoen Plan Estrategikoa](#). Iraupen luzeko zaintzak,

zahartze aktiboa eta bakardade-egoerak dira partekatzen dituzten ardatzak.

Azkenik, XXI. mendeko ikuspegiarekin ulertutako zahartzearekin zuzenean lotutako kontzeptuei honako hauek gehitu behar zaizkie: jarduera-esparru horiek erkide duten gobernantzatik abiatutako planteamendua, berrikuntzan laguntzea –haietako askotan ageri baita hori ere– eta genero-ikuspegian duten foku komuna.

4. Kulturak zahartze aktiboari egiten dion ekarpena

Zahartzea, gaur egun ulertzen den bezala, paradigma positibo baten parte da, eta honako ideia honetan oinarritzen da: adinekoak eskubide osoko subjektuak dira, gaitasun kritikoa dute, eta hazkunde pertsonalerako aukerak dituen bizi-prozesu batean murgilduta daude. Hala, zahartze aktiboak osasunaren, independentziaren eta parte-hartzearen kontzeptuak lotzen ditu, eta adinekoen bizi-kalitatean eta ongizate fisiko eta mentalean duen eragina nabarmentzen du.

Garatzen ari diren estrategiek jarduera sustatu nahi dute gaitasun funtzionalari eusteko oinarri gisa, hori baita ongizatearen eragile nagusia, eta arreta berezia jartzen dute parte-hartzean, autonomia pertsonalean, komunitatean inplikatzeko, belaunaldien arteko praktikan eta


abarretan. Horiek alderdi nabarmenak dira kulturaren balioari, onurei eta inpaktu sozialei buruz hausnartzean. Kulturaren parte hartzea bide pribilegiatua izan daiteke etapa hori kontzientzia eta zentzu osoz igarotzeko, pertsonak intentsitatez bizi daitezen eta berentzat garrantzitsua dena egin dezaten bultzatuz.

Atal honetan, kulturaren ikuspegitik helduko diogu hausnarketari, eta geure buruari galdetuko diogu kultura nola posizionatzen den eta nola islatzen den zahartze aktiboaren jarraipenaren adierazleetan, adinekoen parte-hartze kulturalak zer aukera dakartzkion kultura-sektoreari, eta alderantziz, parte-hartze kulturalak zer onura dakartzkion zahartzaroaren bizipen oso eta gogobetegarriari, eta, azkenik, zer elementu hartu beharko lirakekeen kontuan kultura-

politikak optimizatzeko, hastear dugun erronka demografikoa bete-betean onartuta.

4.1. Kulturaren posizio estrategikoa

Kultura edo, zehazkiago, parte-hartze kulturala eta bizitza oso eta zentzudunaz gozatzeko egiten duen ekarpena bi ikuspuntutatik azter daitezke: betetzen dituen beharrak eta garatzen dituen gaitasunak.



— Beharren ikuspegiak agerian uzten du pertsona jardutera motibatzen duten faktore psikologikoen garrantzia. Maslowren eredu egituratu eta hierarkikoari jarraituz, oinarrizkoenetatik eta instintiboenetatik (fisiologikoak, segurtasuna...) autoerrealizaziora iritsi arte ordenatzen dira faktore horiek, autoerrealizazioa baita beharren maila horretako kontzeptu gorena eta abstraktuena. Behar horiek betetzearekin lotua dago motibazioa, eta oinarrizkoenak asetzen joan badira bakarrik lortuko da autoerrealizazioa. Garrantzitsua da autoerrealizazioa azpimarratzea, zahartze aktiboko estrategietan behin eta berriz agertzen den kontzeptua baita. Izan ere, pertsonak beren bizi-proiektuari buruz askatasunez erabakitzeke duten autonomia nabarmentzen da, beren nahiak edo bizi-helburuak beren kabuz lortzeko aukera eginez. Helburu horiek betetzeko bitarteko ezin hobea da parte-hartze kulturala. Parte-hartze kulturala azaltzen saiatzean, jakina da praktika kultural guztiek ez dituztela behar berak

asetzen. Argi dago kulturaren parte-hartzearen ekarpena oinarrizko beharrak ase ondoren hasten dela, baina gero eta ebidentzia handiagoak daude esateko oso bide baliotsua dela afiliazio-, aitorpen- eta autoerrealizazio-beharrak indartzeko. Ondo aski daki hori kulturaren marketinak, esparru horretan aztertu baitira parte-hartze kulturalarekin lotutako behar emozionalak, kognitiboak, adierazkorrak, sinbolikoak, sozialak eta abar.

— Gaitasunen ikuspegitik, izaera ekonomiko-filosofikokoa, Amartya Senek sortua eta Martha Nussbaumek landua, garapenari eta ongizateari aplikatutako begirada planteatzen du. Senen iritziz, pertsona batek dituen edo kontrolatzen dituen baliabideekin egiten duena edo egin dezakeena dira gaitasun horiek. Bere izatea den hori. Adibidez, aukeratzeko askatasuna edo norberaren bizitza kontrolatzeko askatasuna funtsezko alderdiak dira pertsonen ongizatean. Halatan, honela definitzen dira gaitasunak: ongizatea eta bizi-kalitatea,

bizi-itxaropena, osasuna, hezkuntza eta parte-hartze soziala hobetzeko aukerak eta ahalduak. Nussbaumek 10 gaitasun identifikatu ditu: bizitza, osasuna, gorputz-osotasuna, zentzumenak, irudimena eta pentsamendua, emozioak, arrazoi praktikoa, afiliazioa, bestelako espezieak, jolastea eta ingurunearen gaineko kontrola. Duintasunez bizitzeko behar duguna ez ezik, bizitza zentzuduna izateko egiten dugun borroka ere hartzen du kontuan planteamendu horrek. Nussbaumek, bere irudimen narratiboaren kontzeptuarekin, arteetan eta literaturan tresna egokia aurkitu du pertsonak bizitza osoa izateko helburua lortzeko bidean erabiltzen dituzten moduak ikertzeko. Azken batean, kulturak gaitasun horiek garatzen laguntzen duen heinean, funtsezko ahalmena du eraldatze pertsonal eta sozialerako.

Kulturaren eta zahartze aktiboaren arteko lotura aztertzean beste urrats bat egiten badugu, kulturak prozesu horri zer ekarpen egiten dion ikusteko modurik zuzenena da zahartze aktiboa ebaluatzeko tresnan (zahartze aktiboaren indizea) duen posizioa aztertzea.

Europako Batzordearen Enplegu, Gizarte Gai eta Inklusioko Zuzendaritza Nagusiak eta Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoak (UNECE) elkarrekin kudeatzen dute indize hori, eta adinekoen ongizateari eta adinekoek ekonomiari eta gizarteari laguntzeko duten ahalmenari dagokienez, herrialdeen artean neurketa konparatua egiteko tresna da.

Adinekoek zenbateraino duten bizimodu independentea eta lan ordainduan eta gizarte-jardueretan duten parte-hartzea neurtzen ditu indize horrek, bai eta modu aktiboan zahartzeko duten gaitasuna ere. Parte-hartzea eta gaitasunen ikuspegia konbinatzen ditu. 22 adierazle ditu, eta lau arlotan biltzen dira: enplegua, parte-hartze soziala, bizimodu independentea eta segurua, eta zahartze osasuntsua izateko

gaitasuna. Lehenengo hiruek lurralde batek une jakin batean izandako zahartze aktiboaren emaitzak eta esperientziak erakusten dituzte, eta laugarrenak, berriz,

zahartze aktiboa eta osasuntsua sustatzeko gaitasuna eta egokiak diren ingurune-alderdiak biltzen ditu.

5. grafikoa. Zahartze Aktiboaren Indizearen adierazleen eskema.

Enplegua	Gizartean parte hartzea
Enplegu-tasa 55-59 Enplegu-tasa 60-64 Enplegu-tasa 65-69 Enplegu-tasa 70-74	Boluntario-lanak Seme-alabak, bilobak zaindu Gaixoak eta desgaitasuna duten pertsonak zaindu Politikan parte hartu
Bizimodu independentea, osasuntsua eta segurua	Gaitasuna eta ingurune egokia
Ariketa fisikoa Osasun- eta hortz-zaintzarako aukera Etxebizitza independentea Batez besteko diru-sarrera erlatiboak Pobrezia arriskurik ez Gabezia material larrik ez Segurtasun fisikoa Etengabeko ikaskuntza	55 urterekin geratzen den bizi-itxaropena Bizi-itxaropen osasuntsuaren proportzioa 55 urterekin Buru-ongizatea IKTen erabilera Konexio soziala Hezkuntza-lorpena

Letra lodiz markatutako aldagaiek lotura estua dute parte-hartze kulturalarekin. Jakina denez, kulturaren eta zahartze aktiboaren arteko lotura estua erakusten dute kultura-elkarteetan parte hartzeak, bizitza osoan zehar etengabe ikasteak (eduki eta zaletasun kulturalekin ere oso lotua), IKTen erabilerak

(eduki kulturaletarako sarbidearekin lotua sarritan) eta konexio sozialak (praktika kultural jakin batzuekin lotua hura ere). Elementu horiek aztarnak eskaintzen dizkigute kulturatik bizi-etapa horren bizipen osoan eragiteko.

4.2. Adinekoak, kultura-sektorearentzako aukerak

Atal honetan, adinekoek kultura-sektorerako eskaintzen dituzten aukeretan jarri da arreta: kolektibo horrek gaur egun bere praktika kulturalen bidez zer ekarpen egiten dion sektoreari, joera soziodemografikoak aztertu ondoren irekitzen diren etorkizuneko perspektibak ahaztu gabe.

Adinekoen parte-hartze kulturalaren ezaugarriak


Kulturaren Euskal Behatokiaren 2018ko [EAEko parte-hartze kulturalari buruzko inkestaren](#) arabera, 55 urtetik gorako pertsonen kulturarekiko dituzten jarrera orokorren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Parte-hartze kulturalari garrantzia ematen diote: 7,48, 55 eta 64 urte bitartekoek; 7,21, 65 urtetik gorakoek.

- Ondo informatuta daude: batez ere 55 eta 64 urte bitartekoek taldea nabarmentzen da guztizko biztanleriaren artean.


- Kultura-jardueraren bidez gizarte-harremanak izateko aukerak badu zer hobetu adinekoen talde horretan.

6. grafikoa. Parte-hartze kulturalaren inguruko pertzepzioak. 2018.



Iturria: EAEko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta.

6. grafikoa. Parte-hartze kulturalaren inguruko pertzepzioak. 2018.




Iturria: EAEko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta.

- 65 urtetik gorako pertsonak kultura-jardueretan parte hartzeko duten motibazio nagusia da errutinatik ateratzea eta bestelako sentrazioak izatea. 55 eta 64 urte bitartekoen artean, norbera aberastearren, ezagutzak zabaltzearen eta ihesbidea bilatzearen artean banatuta daude motibazioak.
- 65 urtetik gorakoaren artean zuzeneko ikuskizunetara joaten diren pertsonen kopurua biztanle guztien artean txikiena da, bertso-saioetara eta operara izan ezik. Erakusketak ikustera ere ez dira askotan joaten: 10etik 6 ez dira joan azken urtean. Joaten direnak beren udalerrian bertan joaten dira eta txangoak egiten dituztenean.
- Aretoko zinemak ez ditu adin gazteagoko beste kolektibo batzuk adina erakartzen. 65 urtetik gorakoaren erdia baino gehiago ez dira zinemara joaten. Hala ere, horiek dira telebista gehien ikusten dutenak eta irratia gehien entzuten dutenak.

- Irakurketari dagokionez, jautzia nabari da bi adin-tarte heldu horien artean: 55 eta 64 urte arteko pertsonak irakurle handiak dira, eta 65 urte edo gehiago dituztenek eskaintzen dituzte irakurketa-indize txikienak.
- Parte-hartze handia dago kultura-elkarteetan: 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen % 18,8 gutxienez kultura-elkarte bateko kide da; 65 urtetik gorako pertsonen kasuan, % 14,6koa da parte-hartze hori.
- Praktika artistiko amateurak egiteak ere badu hobetzeko tartea adineko pertsonengan. 65 urtetik gorakoek beste edozein adin-tartek baino gutxiago parte hartzen dute. Egiten dituztenen artean eskulanak eta artisautza nabarmentzen dira.
- Euren prestakuntza artistikoan ere badago hobetzeko tartea.
- Interneten sartzen diren maiztasunari dagokionez, jautzi nabarmena dago bi adin-tarte horien artean: 55 eta 64 urte bitarteko 10 pertsonatik 7 erregularitasunez sartzen da, eta 65 urteko edo gehiagoko 10 pertsonatik, berriz, 3 besterik ez.

7. grafikoak. 65 urtetik gorako biztanleen praktika kulturalak. Ehunekoak. 2018.



*Irakurketaren kasuan, hauxe da eskala: liburu bakar bat ere ez, 1-3 liburu, 4 liburu baino gehiago


Iturria: EAEko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta.

Joera soziodemografikoak eta kulturarako inplikazioak

55 urtetik gorakoen bizi-baldintzei buruzko inkestaren (2020) azterketa ebolutiboak honako joera hauek erakutsi ditu:


- Hezkuntza-mailaren igoera nabarmena 65 urtetik gorako biztanleen artean. 2010ean, biztanleen % 4,6k baino ez zituen unibertsitate-ikasketak; 2020an, berriz, % 24,6ra iritsi zen ehuneko hori. Baby boomaren belaunaldia adin aurreratueta iristearekin batera, nabarmen handituko da unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen pisu hori, eta nabarmen murriztuko dira gizonen eta emakumeen arteko hezkuntza-mailako aldeak. Beraz, adineko biztanleen artean generoko hezkuntza-desberdintasunak orekatzen joango dira etorkizunean. Ez dago azaldu beharrik hezkuntza-mailaren eta parte-hartze kulturalaren artean dagoen korrelazioa.

8. grafikoa. 65 urtetik gorako biztanleen ikasketa-mailaren bilakaera. 2010-2020 bilakaera.



Iturria: 55 urtetik gorakoen bizi-baldintzei buruzko inkesta (2020)

9. grafikoa. 65 urtetik gorako biztanleen egoera ekonomikoaren bilakaera. 2010-2020 bilakaera.




Iturria: 55 urtetik gorakoen bizi-baldintzei buruzko inkesta (2020)

- Erosteke ahalmena handitzea. 2010ean, adineko biztanleen % 18,2k hilean 600 euro baino gutxiago irabazten zituen etxe bakoitzeko; 2020an, berriz, % 2,5era jaitsi zen proportzio hori. Aldiz, hilean 1.800 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten adinekoak 2010ean % 2,8 izatetik 2020an % 32 izatera pasa dira. Datozen urteetan handitzen jarraituko duela aurreikusi da. Egoera ekonomikoa adinarekin eta sexuarekin lotuta dago, eta, beraz, adinez zaharrenek (laurogei urtetik gorakoek) eta emakumeek diru-sarrera txikiagoak dituzte etxean. Genero-desberdintasun handienak adin aurreratueta gertatzen dira, eta talde gazteenetan txikituz doaz aldeak.
- Familien osaerak ere aldaketak nabari ditu: bakarrik bizi diren pertsonen kopuruak gora egin du (1993an % 16,5 izatetik 2020an % 31,1 izatera), bikotean bizi diren kopuruak ere gora egin du (1993an % 31,6 izatetik 2020an % 42,1 izatera), eta, bestetik, nabarmen jaitsi da seme-alabak etxean gurasoekin batera bizitzea (1993an % 15,2 izatetik 2020an % 1,4 izatera).

Bakarrik bizitzea osasun-baldintzak eta baldintza sozioekonomikoak hobetzearen ondorio da, baina kalteberatasuna, gizarte-isolamendua eta gabezia ekonomikoa areagotzeko arriskua du.

- Astero ariketa fisikoa egiten duten adinekoen kopuruak gora egin du, hamarkada honetan biztanleen ia % 10 handitu baita (2010ean % 72,9 izatetik 2020an % 82,5 izatera pasa da).
- Bizi-baldintzei buruzko inkestaren datuen arabera, Euskadin 65 urtetik gorako pertsonen % 15ek egiten du jarduera fisikoren bat. % 7,5ek asteen behin eta % 8k gutxiagotan. Parte-hartze kulturalari buruzko inkestan jasotako antzeko datuak dira.
- Internet gero eta gehiago erabiltzen da. Gora egin du Internet (edo ordenagailua) erabiltzen duten adineko pertsonen kopuruak; izan ere, % 5,5ek erabiltzen zuten 2010ean, eta ehuneko hori % 28,9ra igo zen 2014an eta % 49,3ra 2020an. Argi dago adinekoetan arrakala digitala desagertzen ari dela pixkanaka, Interneten erabilerari dagokionez behintzat.

10. grafikoa. 65 urtetik gorako pertsonen etxeen osaeraren bilakaera. 2010-2020 bilakaera (%).



Iturria: 55 urtetik gorakoen bizi-baldintzei buruzko inkesta (2020)

4.3. Parte-hartze kulturalak zahartze aktiboari egiten dion ekarpena

Puntu honetara iritsita, adinekoen parte-hartze kulturalak zahartze aktiboko eta zaintzako estrategia honi dakarzkion onurei buruz hausnartzea geratzen zaigu.

Gai honek sortzen duen interesaren erakusgarri gisa, aipatzekoa da azken bost urte hauetan eskala handiko txostenak argitaratu direla, bai mundu-mailan bai Europan, eta parte-hartze kulturalak pertsonen osasunean eta ongizatean dituen onuren ebidentziak bildu direla horietan. Txosten horietan berariazko kapituluak eskaini zaizkio parte-hartze kulturalak zahartze aktiboan duen betekizunari.

Ikuspegi psikologikoa

Kulturak bizipen gogobetegarriak emateko gaitasuna du berez, bere aldaera guztietan (intelektuala, emotiboa, sortzailea edo soziala). Giza esperientziaren ikuspegi

sinplifikatzailearen aurrean, indibidualera murriztua eta azken aldi honetan itxurakeriarekin, eksklusiboarekin eta, askotan, garestiarekin lotua, kulturak barru-barruan eragiten du, sakonean eragiten digu, eta hortik sortzen da lotzen gaituen ezagutza-funts komun hori. Esperientzia zehatzen multzoaren fruitu, zentzua, balioa eta eraldatzeko gaitasuna hartzen ditu.

Praktika kulturalak denbora, dedikazioa eta inplikazioa eskatzen die parte-hartzaileei. Kultura-jardueraz gozatzeko emandako orduak erakusten dute jendeak baloratu egiten dituela. Praktika amateurrak eta asoziazionismoak, kulturaren arloan bereziki garrantzitsuak baitira, konpromiso-maila are handiagoa eskatzen dute. Harreman sozialak eta kulturarekiko atxikimendu afektiboak garatuz sortzen da bere balioa. Adinekoen kasuan, beste bizi-etapa batzuetan baino oztopo txikiagoa izaten da denbora, eta, ondorioz, handiago izan daiteke dedikazioa, are gehiago kontraprestazio afektiboa handia bada.

Baina, gainera, parte-hartze kulturala ez da hau edo bestea ikustera joatea bakarrik, plan bat baizik. Janztea da, antolatzea, norekin joan izatea, irteeran hitz egin eta kafe bat hartzea. Beste abantaila batzuen artean, ingurune seguru, eroso eta lasaietan gertatzen da. Ekipamendu gehienak publikoak dira, egokituak, lagunkoiak, eta edonor da ongi etorria. Antzokiak, zinemak, gune soziokulturalak, liburutegiak edo museoak elkartzeko guneak dira, eta askotariko pertsonak biltzen dira bertan. Hori guztia berez balio bat bada, askoz gehiago adinekoen behar psikologiko, fisiko eta sozialetarako. Bakarrik bizitzeko joera sendotzen joango denez eta zaintzak gutxiago egongo direnez familien baitan, kontuan hartzekoa da parte-hartze kulturalaren inguruan sor daitekeen sare edo koltxoi afektiboaren eginkizuna. Zahartze aktiboan baloratu beharreko beste elementu bat da, halaber, leku bati eta interes-komunitate bati ainguratzeko duen gaitasuna.

Gaitasunen ikuspegia

Ikuspegi honetatik begiratuta, praktika kulturelek ezagutza eta edertasuna eskaintzen dute pertsonen bizitzan zehar, eta hala egiten dute bakoitzak nahi dueneraino, a priori mugarik gabe. Hori bai, entrenamendua eta akonpainamendua behar ditu, sasoi fisikoarekin gertatzen den bezala.

Ikuspegi kognitibotik begiratuta, praktika kulturalak ikaskuntza eta hazkunde intelektuala sortzen ditu. Sudokuak edo hitz gurutzatuak egiteak adimena trebatzen duela onartuta dugun bezala, irakurketak, eskatzen duen garunaren jarduera hutsaz gain, dentsitatea eta garrantzia ematen dizkie gure bizitzei, bai eta ihesbidea ere. Gauza bera aplikatu daiteke beste praktika kultural batzuetan ere. Ezagutzaren pizgarri dira, dudarik gabe. Ikerketen arabera, mailakatze bat dago, obra batek egiten dizun pentsatzeko gonbitak dakarren estimulazio kognitibotik hasi, eta gogoeta kritikoa egiteraino, ideia berrietara irekitako

ikuspegian eta norberaren iritziak zalantzan jartzean islatzen dena.

Ikuspegi estetikotik begiratuta, arte-hezkuntza, gustuaren eraikuntza eta norberaren irizpidea izatea sustatzen ditu praktika kulturalak. Horretarako, arte-moduak ezagutu behar dira, balioetsi, haiek erabiltzeko trebetasunak eta teknikak eskuratu, obrak irakurtzen eta deskodetzen jakiteko interpretazio-gaitasuna garatu, eta iritzi estetikoak emateko gai izan. Dimentsio estetiko horretan txertatzen da sormenaren garapena, eta ildo agortezina da pertsonen gaitasunetan. Bai adinekoen gaitasunetan ere. Askok dute ikasteko eta asko irakasteko, giza kapitala, kapital intelektuala eta soziala pilatu baitituzte beren bizitzan. Esparru horretan, azpimarratzekoa da Deustuko Unibertsitateak sustatutako [Kultur Aisia Unibertsitatean](#) programa. Urteak daramatza parte-hartzaile ugari izaten, eta jakin-nahi kulturalak dituzten edozein adinetako pertsonentzako da.

Osasunaren ikuspegia

Behatokiak ikerketa bat egin zuen [Kulturen eta osasunaren](#) arteko erlazioari buruz.

Jakina da praktika kulturalak onura nabarmenak dituela osasunerako, eta hori jasotzen ari da literatura zientifikoa. Izan ere, OMEk (2019) ildo horretako 900 artikulua dituen azterlan bat argitaratu zuen, eta ondorioztatu du nahikoa ebidentzia badagoela baieztatzeko arteen praktika eta kontsumoa onuragarria dela osasunaren zenbait baldintzatzailearen prebentziorako eta tratamendurako. Aztertutako esperientzia askok erakutsi dute praktika kulturalak eragin positiboa duela dementzien prebentzioan eta tratamenduan.

Garrantzitsua da nabarmentzea, onura horiek lortzeko, osasunarekin loturiko helburu esplizitu batekin pentsatu eta diseinatu behar direla kultura- edo arte-jarduerak. Praktika kulturalak osasunean dituen ondorio positiboak dagokienez, bi alderdi bereizi behar dira: zenbait gaixotasun edo osasun-

arazo izateko arriskua prebenitzeko egiten duen ekarpena, eta osasun-afektazio jakin batzuk hobetzeko tratamendu osagarri gisa jarduteko duen gaitasuna. Gainera, osasunean dituen eraginak desberdinak dira kultura-jarduera modu aktiboan egiten den edo modu pasiboagoan kontsumitzen den kontuan hartuta.

Kulturak zahartze aktiboan izan dezakeen zeregin estrategikoa identifikatu du NBEk. Ikerketek erakutsi dute kulturak baduela ahalmena osasun-arazoak prebenitzeko, hiru eremutan jardunez: osasun-egoeran eragin negatiboa duten gizarte-determinatzaile batzuk hobetzea, osasunaren aldeko jarrerak sustatzea eta gaixotasun batzuk zuzenean prebenitzea. Gaixotasunen tratamenduan dituen onurei buruzko ebidentziak ere badaude. Are gehiago, jakina da zer jarduerak eta praktikek eragiten duten afekzio jakin batzuk hobetzeko.

Europako esparruan, ikuspegi hori azpimarratzen du [Culture for Health](#) proiektuak, politiketarako orientabideak

emanez eta [jardunbide egokien adibideak](#) emanez. Adibide gisa, Espainian bakarrik, adineko pertsonentzako 14 ekimen ageri dira, era askotakoak: museoetara bisita gidatuak egitea agintzen duten proiektuak, antzokietara irisgarritasuna erraztea, edo Alzheimerra duten pertsonentzako arte-proiektu bat, horietako hiru bakarrik aipatzearren.

Nahikoa izan bedi aipatzea, ikerketa horietan egindako aurkikuntzen artean, ikusi dela erlazioa dagoela abesbatza batean parte hartzearen, funtzio kognitiboen hobekuntzaren eta osasun mentalaren artean; dantza-klaseetan parte hartzeak eragin positiboa duela funtzio kognitiboan eta erorikoen prebentzioan; erlazio onuragarria dagoela, halaber, musikan eta pinturan parte-hartze aktiboa izatearen eta ongizate emozionalaren artean; eta parte-hartze kulturalak, bai jasotzen denak bai aktiboak, areagotu egiten duela adinekoen konpromiso soziala.

4.4. Kultura-politikak birpentsatzea

Ikusi dugunez, egiaztatzen hasi dira parte-hartze kulturalak pertsonen osasunean eta ongizatean dituen onura zehatzen ebidentziak. Ikus dezagun, jarraian, zer inplikazio izan ditzakeen indarrean dauden kultura-politikak birpentsatzean, bi ikuspegi kontuan hartuta: kultura-programen edukiak, eta, oro har, kultura-politikak berak.

Edukien ikuspegia

Parte hartzeko moduei dagokienez, jakina da bai jasotzen den praktikak bai praktika aktiboak hobekuntzak dakartzatela, baina azken horrek, gainera, konpromiso eta inplikazio sozial handiagoa dakar, “parte hartzeaz” gain, komunitate baten “parte izatea” ere badakarrelako. Ez dezagun ahaztu eskubide kulturaletan oinarritua eta haiekin zuzenean lotua dagoela ikuspegi hau. Horren harira, gure testuinguruan oso errotuta dauden jarduera amateur

guztiek, hala nola kantu koralak, musikak edo dantzak, beste arte-adierazpen batzuk ahaztu gabe, garatzeko ahalmen handia dute adinekoen kolektiboan. Izan ere, horietako batzuetan, eurak izaten dira publiko nagusia. Azkenik, adinekoekin gutxi landua dagoen aukera-eremu bat irekitzen du parte-hartze digitalak. Eta ez da ahaztu behar, alde batetik, izugarritzko abiaduran doala aurrera, eta Adimen Artifizialaren (AA) eremua oso tresna baliagarria izan daitekeela trebetasun eta trebezia jakin batzuk modu ludikoan garatzeko. Nolanahi ere, ez da ahaztu behar adinekoen kolektiboan sartzen ari diren talde berriek erraztasunez erabiltzen eta

maneiatzan dutela ingurune digitala.

Adinekoei zuzenean eragiten dieten gaiei erreparatzen badiegu, kultura-ondare immaterialaren adierazpen asko aurkituko ditugu. Haien transmisioa mantendu, zaindu eta ziurtatzeko, ondare komun hori ezagutzen duten pertsonekin egin behar da lan, adinekoekin eta, bereziki, emakumeekin.

Formatuei dagokienez, ikus-entzuleen profil horrekin lan egiteko, haien beharrak ondo ezagutu behar dira, eta horrek esan nahi du zurruntasun txikiagoarekin jardun behar dela praktika kulturalari lotutako erritualari berari dagokionez; orduategi malguagoak



bilatu behar dira, esaterako, goizetan denbora librean dutela aprobetxatuz; eta arratsaldeko ordutegiak aurreratu egin behar dira, kultura-proposamenez gozatzen joan daitezen, baina afaltzeko eta atseden hartzeko ohiturak mantenduz. Kontuan hartu beharreko beste elementu bat da, jakinda pertsona horietako asko, bereziki zaharrenak, bakarrik bizi direla, zein inguruetan gertatzen diren. Ez da ahaztu behar nahi gabeko bakardadea dela gure garaiko izurriteetako bat. Praktika kulturalak harreman-ingurune bat bultzatzen du, eta horrek lagundu eta aberastu egiten du norberaren adierazpen-bizipena. Horrela, egoera horretan dauden pertsonak etxetik ateratzen dira, konpainia dute, eta kultura-jarduera aire zabalean egin badaiteke, askoz ere hobeto.

Generoaren ikuspegitik begiratuta, garrantzi berezia dute bi kontu daude: badakigu emakumeek, gehiago izateaz gain, intentsitate handiagoz parte hartzen dutela kultura-jardueretan, eta lotuago daudela

zaintzen erantzukizunari dagokionez. Ez zaie kostatzen kultur jardueretara joatea, joan ahal izatea da zailena. Premisa hori kontuan hartuta diseinatu beharko litzateke eskaintza. Gainera, praktika kulturala gozamenerako, barre egiteko eta plazererako bidea da, EAEko Emakumeen Etxeetan egin berri den ikerketa batean adierazi dutenez. Eta gizonei dagokienez, haien premiei eta gustuei ere erreparatu beharko zaie, gutxiago joaten baitira, eta proiektioek adierazi dute handituz joango dela adinekoen kolektiboan duten pisu proportzionala.

Azkenik, belaunaldien arteko jarduerak dira zahartze aktiboko estrategien funtsezko alderdi bat. Gaur egungo bizimoduak ez du errazten hainbat belaunaldi etxe berean bizitzea, nahiz eta bizi-itxaropena handitzeak berekin ekarri duen belaunaldi gehiago egotea familietan. Beharrezkoa da belaunaldien arteko programen diseinua sustatzea, prezio-politiken bidez programa horietara iristea bultzatzea, eta abar.

Arlo horretan asko dago garatzeke, ondo pentsatutako irudimenezko programekin.

Kultura-politiken ikuspegia

Hurbiltasuna eta aniztasuna. Bi printzipio horiek aintzat hartu behar dira bai zaintza-estrategietan, bai kultura-politikan. Alde batetik, hurbileko zerbitzuak dira, herritarrengandik gertuen daudenak, ez bakarrik zentzu fisikoan, baita bultzatzen duten harreman-motan ere, zahartze aktiboaren erronkari arreta ematen dioten kultura-politiketarako esparru naturala baitira. Kultura-politiken abantaila da, gaur egun, nahiko finkatua dagoela hurbileko kultura-zerbitzuen eskaintza. Egiaz badaude aukerak zerbitzuak eskura izateko, hala nola liburutegiak, antzokiak, praktika amateurak, etab. Gipuzkoako Foru Aldundiaren [Gertu Kultura](#) programak kultura-zerbitzuetarako sarbidea errazten du. Bere ateak pertsona guztientzat zabalik daudela esan ohi dugu. Beste kontu bat da, agian, indartu egin behar

dela zerbitzu horiek erabiltzeko gonbita, eta horrek esan nahi du zahartzaroko egoera desberdinetara egokitu behar direla.


Eskaintzen dituzten proposamenen aniztasunari dagokionez, zahartzaroan dauden errealitateen aniztasunari ere erantzuten diote. Adineko jendeak gainerako biztanleen baldintza berdinetan eskura dezakete kultura. Kontua da baldintza berezietan edo kalteberenetan dauden pertsonak ere parte hartzeko aukerak izatea. Eta horrek eragina du esperientzia osoan (formatuak, ordutegiak...), bai eta zaintzen ingurunean ere (zaintzaileak, laguntzaileak...).

Ezagutza eta berrikuntza. Zaintzen arloa ezagutza espezializatuko beharrak sortzen hasi da maila guztietan, eta horrek esan nahi du kultura-zerbitzuetatik ere badaudela aukerak I+G+Bn aurrera egiteko. Izan ere, zahartzearekin eta zaintzekin lotutako egungo ikerketaren zati handi bat biomedikoa edo teknologikoa da. Kultura

ingurune ezin hobe da esparru horretan esperimentatzeko. Gainera, merkea da, ez duelako aparteko inbertsiorik behar. Badakigu, gainera, txosten honetan zehar argudiatu den bezala, ekarpen handia egin dezakeela pertsonen osasuna eta ongizatea hobetzeko. Adibide gisa, aspaldi ez dela egindako ikerketa-proiektu baten emaitza gisa, app bat sortu da, **Oroitzapenen terapia appa**, adimen artifizialean oinarritua, kultura-ondare immaterialeko elementuak erabiliz

norberaren bizi-esperientziaz hitz egiteko eta oroitzapenak partekatzeko. Adinekoen nortasuna lantzeko eta autoestimua indartzeko modu bat da, ezagutza zientifikoa, teknologia eta eduki kulturalak konbinatuz.

Hirugarren adinekoen elkarteek berebiziko garrantzia dute zahartze aktiboko estrategietan, maila guztietan. Adineko pertsonak antolatuak daude, asko dira, eta badakigu datozen urteetan are gehiago



izango direla, biztanleriaren herena izatera iritsiko baitira. Hori aktiboa eta erronka da kultura-politikak birplanteatzeko orduan. Hala, bada, gobernantza, ehun horrek zerbitzuen eta kultura-proposamenen eskaintzaren diseinuan eta garapenean zuzenean parte hartzea, funtsezkoa izango da kulturak zahartze aktiboaren prozesuari egiten dion ekarpenaren garrantzia erabat onartzeko.

Ingurune digitala aliatu gisa. Adinekoek kulturarekin duten harremanean ingurune digitala oztopo gisa ikusteko joera dago oraindik ere. Eta ez luke hala izan behar. Izan ere, gaur egun dauden baliabide asko, hala nola liburutegi-zerbitzuek eskaintzen dituztenak (irakurketa erraza, audio gidak, ikus-entzunezko materiala...) edo beste zerbitzu batzuk, bitarteko digital horrek eskaintzen dituen aukerez baliatzen dira. Alor horretan, bada eremu bikain bat garatzeko, batez ere adimen artifizialaren tresnen esparruan. [Ekin Touch](#) proiektua da tresna horien erabileraren adibide bat, tresna digitalen erabileran oinarritua, egoera

zaugarrietan dauden pertsonentzako metodologia berritzaileen bidez. Irtenbide telematikoak baliabide egokiak dira bakardadean bizi den kolektibo bat integratzeko eta laguntzeko.

Gaikuntza eta konexioa. Kulturaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arteko sinergiak azpimarratu ditugu, baina kontuan izan behar da orain arte, salbuespenak salbuespen, bereiz funtzionatu duten esparruak direla. Esan dugu, halaber, denak ez duela denetarako balio, eta espezializazioa eta ezagutza behar dituela gerontologiaren esparru horrek. [Finlandian](#) egindako ikerketa batek ebidentzien bidez erakutsi du hobetu egin dela adinekoak zaintzeko zentroetara joaten diren pertsonen bizi-kalitatea, betiere haien beharren neurria egokitutako plana baldin badute. Beraz, beharrezkoa da kulturaren eta osasunaren ardura duten pertsonak gaitzea eta trebatzea lankidetzaproiektuei ekiteko beharretan eta aukeretan. Kultura agintzeko, botikak agintzeko bezalaxe, eskaintza ezagutu egin behar da, eta bizi-egoera bakoitzerako

proposamen egokienak zein diren jakin. Era berean, kulturatik beharrezkoa da egoera horien eskakizunak ezagutzea, berezitasun horiekin bat datozen proposamenak diseinatzeko. Eta lehen urratsa da arlo eta zerbitzu horiek hurbiltzea.

5. Azken gogoetak

Mendebaldeko gizartearen erronka soziodemografiko nagusietako bat da biztanleriaren zahartzea. Horrek duen eragin handiaz kezkatuta, erronka horren neurriko erantzunak emateko diseinatutako estrategiak planteatzen ari dira erakundeak eta gobernuak. Kulturak zahartze aktiboari dakartzkion onurei buruzko ebidentziek beharrezko, lehentasunezko eta ahalmen handiko lan-eremua ireki dute kultura-politiketarako.

Adinekoen kolektiboak era askotako bizi-egoerak biltzen ditu. Alde horretatik, kultura-politikek egungo beharrei erantzun behar diete, eta ikusten diren joerei ere adi egon behar dute. Bakardadea, iraupen luzeko zaintzak eta etapa horretan pixkanaka gertatzen den narriadura fisiko eta mentalarekin batera, badaude aukerak OMEk zahartze osasuntsu eta aktiboan esku

hartzeko ardatz gisa proposatzen dituen etengabeko ikaskuntzaren eta belaunaldien arteko jardueren inguruan. Esparru horretan, praktika kulturala bide ezin hobe da osasuna eta zahartzaroarekin lotutako bizi-egoerak zaintzeko eta hobetzeko.

Adinekoekiko Euskal Estrategian planifikatu diren bost ardatzekin bat etorriz, parte-hartze kulturala beharrezko indargarria da horietako bakoitzean, eta lankidetzaz-esparru izan daitekeena ireki du kultura, osasuna eta gizarte-zerbitzuak hirukotean.

1. Lehenengo ardatzaren helburua da herritartasun aktiboa sustatzea, eskubideetan, parte-hartzean eta komunitate lagunkoietan oinarrituta. Praktika kultural aktiboek, bai kultura-elkarteetan parte hartuz, bai adierazpen-jarduerak eginez, indartu egiten dituzte

bizitza osoa lortzera bideratutako proiektuak. Jardueretan parte hartzeaz gain, bizitzan garrantzia eta zentzua duen zerbaiten parte izatearen sentimendua bultzatzen duten jarduerak sustatzea da kontua, eskubide kulturelek defendatzen dutenarekin bat etorritik.

2. Bigarren ardatzaren helburua da trantsizioak eta bizi-proiektuaren garapena erraztea aldaketa pertsonal handiak ezaugarri dituen etapa horretan. Kultura-politikek trantsizio horien bizipena hobetzen lagun dezakete, informazioa, orientazioa, akonpainamendua eta gaikuntza indartzeko tresna gisa. Etengabeko ikaskuntzaren esparrua, beraz, bide oso egokia da arteetan eta ondarean errotutako proposamenak garatzeko.

3. Hirugarren ardatzaren helburua da aurrea hartzea, prebentzioa eta adinekoen autonomiaren sustapena bultzatzea. Inoiz ez bada ere zalantzan jarri praktika kulturalak onurak dakarzkioa prozesu horri, hori berresten duten ebidentzia zientifikoak ere badaude orain. Zientziak aztertutako kasu asko adinekoen kolektiboarekin loturik daude eta erakutsi dute praktika kultural jakin batzuek eragin positiboak dituztela dementzien prebentzioan eta tratamenduan. Musika, dantza, kantua, antzerkia edo ikusizko arteak lantzeak pertsonen ematen dizkien estimuluak esperimentaziorako haztegi ezin hobeak dira. Nahi ez den bakardadearen tratamenduan ere lan-esparru emankorra dira, dudarik gabe.
4. Zaintzen politika eta eredu berri baten planteamendua dira laugarren ardatzaren xedeak. Pertsonak, profesionalak eta familiak hurbileko kultura-zerbitzuen sarean babes daitezke, xede duten zaintza-eredu integralaren osagai

gisa. Horixe da eremu ikusezin eta garrantzitsuenetako bat, zahartze aktiboko politika serioei ekin nahi bazaie. Praktika kulturalak, onura pertsonal eta sozialak ekartzeaz gain, beharrezko atsedena dira zaintzen ingurunea osatzen duten pertsona guztientzat.

5. Bosgarren ardatzaren helburua da ikerketa eta berrikuntza sustatzea, horiek ezinbestekoak baitira zahartze-prozesua hobeto ezagutzeko, konponbideak bilatzeko eta planteatzen diren erronkekin bat datozen politikak diseinatzeko; izan ere, erronka horiek ez dira gutxi, ezta txikiak ere. Aurrerapausoak egiten ari dira pertsona horien osasuna hobetzera bideratutako irtenbide digitalak diseinatzeko. Bide horretan, modu naturalean sartzen dira eduki kulturalak, eta etorkizunean diseinatuko diren soluzio berritzaileak indartu ditzakete, bai teknologiaren ikuspegitik, bai gizartearen ikuspegitik.

Diziplina anitzeko ikerketa horren parte izan behar du kulturak, maila globaleko proiektuetan ikusten hasi den bezala. Eraldatzeko gaitasun handia du, bai maila pertsonalean bai gizarte-mailan, eta, horrenbestez, ezinbesteko esparrua da zahartze aktiboko politikei laguntzeko. Oraingoz, elementu tangential gisa ageri da zahartze aktiboko estrategietan. Erabat onartzen den bezala ariketa fisikoa eta bizi-ohitura osasungarriak guztiz garrantzitsuak direla etapa horretan bizitza hobetzeko, zahartze-prozesuko errutinen eta ohituren parte izan beharko luke praktika kulturalak.

Bibliografia

Bussolo, M. Koettl, J.y Sinnott, E. (2015) *Golden Aging Prospects for Healthy, Active, and Prosperous Aging in Europe and Central Asia*. World Bank. Hemen eskuragarri:

<https://www.worldbank.org/en/region/eca/publication/golden-aging>

Europako Batzordea (2021) *Libro verde sobre el envejecimiento. Fomentar la solidaridad y la responsabilidad entre generaciones*.

Hemen eskuragarri:

<https://op.europa.eu/es/publication-detail/-/publication/d918b520-63a9-11eb-aeb5-01aa75ed71a1>

Gizarte Ekintza Saila. (2013) Bizkaiko adinekoen plan estrategikoa. Bizkaiko Foru Aldundia. Hemen eskuragarri:

https://www.bizkaia21.eus/Biblioteca_Virtual/detalle_documento.asp?idDoc=1267&idPagina=120&volver=1&idioma=eu&orden=3&tipoOrden=0

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. (2021) *Adinekoekiko Euskal Estrategia 2021-2024*. Eusko Jaurlaritza.

Hemen eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_ss/eu_publica/adjuntos/DOSSIER ESTRATEGIA MAYORES_eus_interactivo.pdf

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Matia Fundazioa. (2021) *Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzei buruzko ikerketa 2020*. Eusko Jaurlaritza. Hemen eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_ss/eu_publica/adjuntos/CONDICIONESVIDA_EU.pdf

Esteban, M.L. Fernández, I. eta Fernández de Labastida, I. (2021) *Adineko emakumeekin lan egiteko gakoak. EAE-Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen Etxeekin egindako proiektua*. Hemen eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/web01-a2zesosa/eu/contenidos/documentacion/doc_sosa_adinekoemakumeekin/eu_def/index.shtml

Eurostat (2020) *Ageing Europe*. Hemen eskuragarri:

https://ec.europa.eu/eurostat/statisticsexplained/index.php?title=Ageing_Europe_-_statistics_on_population_developments

Adinberri Fundazioa (2022) *Zahartze osasuntsurako estrategia*. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Imsero (2011) Libro blanco del envejecimiento activo. Hemen eskuragarri:

<https://imsero.es/eu/espacio-mayores/envejecimiento-activo/libro-blanco-del-envejecimiento-activo>

Innobasque. (2024) *Innobasque Prospectiva txostena 2024 Berrikuntza joerak*. Hemen eskuragarri:

https://www.innobasque.eus/wp-content/uploads/2024/03/EU_informe_innobasque_prospectiva_24-Tendencias-de-innovacion-1.pdf

Love, P. (ed.) (2018), *Envejecimiento. Análisis de temas de actualidad, Esenciales OCDE*, OECD Publishing, Paris. Hemen eskuragarri:

https://read.oecd-ilibrary.org/social-issues-migration-health/envejecimiento_9789264288119-es#page5

Nazio Batuak- Osasunaren Mundu Erakundea (2015) *Informe mundial sobre el envejecimiento y la salud*. Hemen eskuragarri:

<https://www.who.int/es/publications/i/item/9789241565042>

Nazio Batuak- Osasunaren Mundu Erakundea (2020) *Década del envejecimiento saludable 2020-2030*. Hemen eskuragarri:

<https://www.who.int/es/publications/m/item/decade-of-healthy-ageing-plan-of-action>

Kulturaren Euskal Behatokia (2022) *Kultura eta osasuna*. Eusko Jaurlaritza. Hemen eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/keb_argit_22_osasuna/eu_def/adjuntos/Kulturaren-Euskal-Behatokia-2022_Kultura-eta-osasuna.pdf

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia (2022) *Erronka demografikoa. 2030erako Euskal Estrategia*. Eusko Jaurlaritza. Hemen eskuragarri:

https://bideoak2.euskadi.eus/2022/06/21/news_78434/I_Esparru_orokorra_Erronka_demografikoa_eus.pdf

Zbranca, R., Dâmaso, M., Blaga, O., Kiss, K., Dascăl, M. D., Yakobson, D., & Pop, O. (2022). *CultureForHealth Report. Culture's contribution to health and well-being. A report on evidence and policy recommendations for Europe*. CultureForHealth. Culture Action Europe.

Hemen eskuragarri:

https://www.cultureforhealth.eu/app/uploads/2023/02/Final_C4H_FullReport_small.pdf



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

Kultura eta zahartze aktiboa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

